

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduek Kultur Bira zirkuitua Aguraingo 2019 Kultura Zirkuituan parte hartzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia**

Aguraingo Udalak, tokiko gobernu batzarrak 2019ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen onestea dirulaguntzen deialdia eta oinarri arauak, merkataritza eta ostalaritzako establezimenduek 2019ko Kultur Bira zirkuituan parte hartzeko.

Aguraingo Udalaren xedea da ekarpen bat egitea, dirulaguntzen bidez, udalerriko kultura sormena bultzatzeari zentzurik zabalenean; halaber, garapen bideak jarri nahi dizkio herriko bertako eta kanpoko kultura sortzaileen jarduerari, zeinahi dela ere beren adar artistikoa, arreta berezia jarriko dielarik formatu txikiko emanaldiei.

Gainera, ekimen horren helburuetarik bat da gizartearen parte hartzea ahalbidetzea kultura jardueretan eta herriko gizarte bizitza piztea, horretarako lagungarri izan daitezkeelarik udalerriko merkataritza eta ostalaritza eta haiek sustatzea.

Horiek horrela, Udalak "Kultur bira" Aguraingo Kultura Zirkuitua sortu eta garatzen lagunduko du, udalerriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduekin lankidetzan arituz, formatu txikiko gizarte eta kultura izaerako ekimenak garatzeko, nola merkataritza eta ostalaritzako guzietan hala establezimendu horien ondoan dauden guneko publikoetan, baita udalerriko beste guneko publiko batzuetan ere.

#### **1. Xedea**

Oinarri hauen xedea da baldintzak arautzea udalak dirulaguntzak emateko 2019an kultura jarduerak antolatzen dituzten entitateei.

#### **2. Onuradunak**

Agurainen dauden merkataritza establezimenduak. Ostalaritza eta merkataritza, oro har, sartzen dira eremu horretan. Udalak bitartekoak jarriko ditu udalerriko merkataritza eta ostalaritza establezimendu guztiek araudi honen berri izan dezaten.

Arau hauetatik kanpo geratuko dira udalerriko saltegiekin edo beste izate juridiko bat daukaten entitateekin lankidetzan antolatzen ez diren jarduerak.

#### **3. Jarduerak**

Formatu txikiko gizarte eta kultura izaerakoak izango dira jarduerak, eta herritar guztiei zuzenduko zaizkie.

Udalak edo merkataritza sustatzeko zerbitzuak argituko dute merkatariek izan dezaketen zalantza oro.

Horretan interesa daukan saltegiak hartuko du ardura ekitaldia kontratatzeko eta horrek eragindako gastu guztiak bere gain hartzeko, eta jarduera behar bezala egingo dela bermatuko du.

Oinarri hauetan jasoriko dirulaguntza emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik; hau da, ez dakar ez kontratu zibilik, ez lanekorik, ez administraziokorik, ez beste inolakorik, Aguraingo Udalaren eta entitate onuradunaren artean.

#### 4. Balorazio irizpideak, "KULTUR BIRA" Aguraingo Kultura Zirkuitua egiteko

Udalak irizpide hauek izango ditu kontuan:

1. Diruz lagundutako jardueran euskara erabiltzea. Gehienez 3 puntu.
2. Herriko bertako taldeak edo pertsonak bultzatzea jardueretan. Gehienez 2 puntu.
3. Merkataritzako hainbat establezimenduk egindako jarduerak. Gehienez 1,5 puntu.

Horrez gain, jarduera horiek maiatzetik irailera arteko astebururen batean egindako 4 jarduerako ziklo bat osatzen badute, zikloari mila (1.000) euro arteko dirulaguntza eman ahalko zaio.

4. Merkataritza establezimenduen ondoan dauden gunek publikoetan antolatutako jarduerak, batez ere maiatzetik irailera arteko aldietan. Gehienez 2 puntu.

5. Bere originaltasunagatik gailentzen diren jarduerak sarituko dira, gehienez 0,75 punturekin, jada egin direnen gainetik nabarmentzen badira.

6. Halaber, kontuan hartuko da zer diru ekarpen egiten duen entitate eskatzaileak (gastuaren zer ehuneko hartzen duen bere gain). Gehienez 0,75 puntu.

#### 5. Metodologia

Aguraingo Udalak hilean 666,66 euroko partida dauka (urtean 8.000 euro). Kultura zirkuituaren programa bi hilabeteko tarteetan antolatzea hobesten da, eta programazio urriagoa duten neguko hilak multzotan batuko dira:

- urtarrila-martxo (epe horretan egindako eskaerak martxoaren 15era arte gauzatuko dira).
- apirila-maiatza.
- ekaina-uztaila.
- abuztua-iraila.
- urria-abendua.

Arau orokor gisa, eskaerak zikloa hasi aurreko hilaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira. Horregatik, apirila-maiatza eperako eskaerak martxoaren 21 arte aurkeztuko dira, ekaina-uztaila eperakoak maiatzaren 17 arte, abuztu-iraila eperakoak uztailaren 18 arte, eta urria-abendua eperakoak irailaren 19 arte.

Udala obligatzen da jasotako proposamenak eta haien ondorio diren programak baloratzera eskaerak aurkezteko epea bukatu eta 7 egun igaro baino lehen (martxoaren 29a, maiatzaren 29a, uztailaren 23a eta irailaren 27a).

Organo instrukzio egileak, hau da, kultura zerbitzuak egingo du lehenengo balorazioa eta hark eskatuko ditu eskatu beharreko txostenak.

Udalak gehienez ere guztira egindako gastuaren ehuneko 80ko ekarpena egingo du eskatutako jardueretarako, inola ere gainditu gabe jardueren ezaugarrien edo moten arabera ezartzen diren zenbateko hauek:

- Musika jarduerak: 200 euro.
- Lantegiak, ikastaroak...: 150 euro.
- Erakustaldi edo erakusketak: 100 euro.
- Hitzaldiak: 150 euro.
- Beste batzuk. Gehienez ere: 200 euro.

Baldin eta epe bakoitzeko aurrekontua osorik gastatzen ez bada, sobera gelditzen den diru zenbatekoa hurrengo aldiko programazioei gehitu ahal izango zaie.

## 6. Komunikazioa eta propaganda

- Kultura zirkuituak “KULTUR BIRA” izena edukiko du.
- Komunikazioa eta propaganda udalak gauzatuko da, jarduera guztietarako kartel orotariko batean. Kartel mota bietan udalaren logoa eta Kultur Bira programaren ikurra sartuko dira. Jardueraren propaganda toki hauetan jarriko da gutxienez: udalaren web orrian eta sare sozialetan, merkataritza establezimenduan, halakorik badauka, eta kultura zirkuituan borondatez parte hartzen ari diren establezimendu guztietan.

## 7. Onuradunen betebeharrak

1. Xedea betetzea eta eskatutako jarduera gauzatzea.
  2. Aguraingo Udalari jarduera egin izana justifikatzea, memoria labur baten bidez, jardueraren argazki eta guzti.
  3. Aguraingo Udalak eskatutako finantza eta gauzatze egiaztapen jardun guztiak egitea, eskatzen den informazio guztia erantsiz.
  4. Aguraingo Udalari jakinaraztea jardueraren balantze ekonomikoa. Ikus 11. puntua.
  5. Egiaztagiriak ekitaldian zehar gordetzea, aurkeztu behar baldin badira aurkezteko, kontrol jardueratarako eskatuz gero.
  6. Aldaketarik egoten bada proposatutako eta erakundeak diruz lagundutako jardueran, Aguraingo Udalari jakinaraztea.
  7. Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak eta hura behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren aseguru eta baldintza guztiak lortzea.
  8. Eskatzaileak beteta izan behar ditu zerga betebeharrak Aguraingo Udalean.
  9. Zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, adierazteko dirulaguntzarik jaso duten ala ez beste administrazio, erakunde edo organismo batzuetatik jarduera bera egiteko.
- Baldintza horietakoren bat partez ez bada betetzen, dirulaguntza gutxitu edo ukatu egin ahalko da.

## 8. Eskaerak, agiriak eta aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira horretarako orria betez, 5. puntuan zehaztutako epeetan. Udal erregistroaren bitartez (bertatik bertara) edo email honen bidez egin ahal izango dira: [kultura@agurain.com](mailto:kultura@agurain.com).

## 9. Prozeduraren instrukzioa

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, kultura arloak aztertu egingo ditu jasotako eskabideak eta egindako txostenak. Dirulaguntzak ezarritako irizpideen eta aurkeztutako eskaera kopurua arabera arabera hautatuz emango dira. Organo instrukziogileak baloratutakoan, txostena egingo du Euskara, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordeak.

## 10. Jakinarazpena

Organo eskudunak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie laguntzak eskatu dituztenei.

## 11. Justifikazioa eta epea

Dirulaguntza ordainduko da behin justifikatuta, agiri hauen bidez:

- Jardueraren memoria laburra, argazkiak erantsita ereduaren arabera.
- Egin diren kartelen eta propagandaren kopia.

– Jardueren emate garaian data jarritako jatorrizko fakturak, zehaztasun hauekin: jasotzailearen Nortasun Agiri Nazionala edo lizentzia fiskalaren zenbakia, etxe hornitzailearen zigilua edo sinadura eta, BEZa ordaintzetik salbuetsita egonez gero, nahitaez, hori egiaztatzen duten agiriak.

– Jarduerak diru sarrerarik eman badu, horien aitortzea (matrikulak, babesleak, publizitatea...)

– Artista batek hainbat ekitalditan parte hartu badu ere, haiek banan-banan justifikatu beharko dira (jarduera bakoitza bere memoriarekin eta fakturekin).

Justifikatutako diru kopurua eskaeran adierazitako aurrekontua baino gutxiago bada, udalak dagokion diru kopurua kenduko dio emandako laguntzari.

Egindako jardueren gastua justifikatu beharko da, beranduenik, hura bukatu eta hilabete bat igaro baino lehen. Gastua zuritzen duten agiri horiek bertatik bertara, udal erregistroan, edo eskaneatuta email bidez ([kultura@agurain.com](mailto:kultura@agurain.com)) aurkeztuko dira, nahiz eta gerora berriro eskatu ahal izango diren.

## **12. Kultur Birarako diru kopurua**

Deialdi hau gauzatzeko, gehienez, 8.000 euro bideratu dira, 334.481.016 "Circuito cultural / Kultur-bira" partidaren kontura.

## **13. Araubide juridikoa**

"Oinarri hauetan aipatzen ez diren kontuetan, arau hauek aplikatuko dira: Aguraingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra; 887/2006 Errege Dekretua, aurreko lege hori garatzen duen erregelamendua onartzen duena; eta, orobat, aplikatzekoak diren gainerakoak."

Agurain, 2019ko otsailaren 22a

*Alkatea*

**IÑAKI BERAZA ZUFIAUR**